



■ GABONAK

Beste 11 ekitaldi, Gabonetan gozatzeko

Gabon errondak, bertso jaialdia, txapelketak... pasa dira, baina beste 11 ekitaldiz gozatzeko aukera bada oraindik, Gabonetan. Gaur umeentzako tailerrak eta karaoke festa izango dira.

GABONETAKO egitarauak beteta jarraitzen du. Gaur bertan, 6 eta 11 urte bitarteko haurrentzako tailerrak izango dira udaletxeko arkupeetan, 16:30etatik 18:30etara. Eta 18:00etan karaoke festa izango da Portu auzoan.

Umeentzako beste hainbat ekitaldi izango dira oraindik. Portu auzoan, bihar, 17:30etan pelikula bat jarriko dute; etzi, 10:30etan Santa Barbara aldera abiatuko dira, mendi buelta ematera; eta urtarilaren 2an erroskila tailerra eta merendola egingo dira, 16:30etan.

Gibelalde elkarteak ere haurrentzako zine emanaldia antolatu du urtarilaren 2rako, 18:00etan hasita.

Bertsoak, areto barruan eta kalean

Haurrek bakarrik ez, helduek ere badute zerekin gozatu. Bertsolataren barruan, larunbateko bertso jaialdian lepo bete zen Biteri, puntako 6 bertsolariak entzuteko. Umorerik ez zen falta izan bertsoetan Agin Laburuk jarritako gaiei erantzuteko. Hasi ziren ligoteo kontuekin, eta bukatu zuten familian Gabonak ospatzen.

Horren aurretik, Gabon egunean baserriz baserri errondan ibili ziren bertso eskolako eta Ohitura Zaharrak abesbatzako kideak. Asteazken honetan ere egingo dute beste buelta bat, oraingoan herrian barrena. 17:15etan dira elkartzekoak, udaletxeko arkupeetan.

Bertsolataren barruan emango duten azken emanaldi berezia, berriz, biharkoa izango da, 19:00etan Biterin. Fernando Amezketarra jaio



Gabon errondan baserriz baserri ibili ziren, eta urte zahar gauean herrian barrena ibiliko dira.

zela 250 urte bete diren honetan, haren bertsoetan oinarritutako emanaldi berezia eskainiko dute Eñaut Agirrek, Imanol Kamiok eta Aitor Atxegak, kantuan, gitarak eta pianoak lagunduta.

Urteberriko kontzertu berezia

Urte berria ere bertan daukagu, eta ondo hasteko kontzertu berezia prestatu dute urtarilaren 3rako. Hernaniko Otxoteak, Transilvaniako Virgil eta Julian musikariek eta Goiz Eguzki abesbatzak emango dute, Milagrosan.

Hortik aurrera, errege magoen etorreraren zain gelditzea besterik ez da faltako, Gabonak bukatzeko. ■



Larunbateko bertso jaialdian lepo bete zen Biteri. Bertsolataren barruan, emanaldi berezia izango da bihar Fernando Amezketarren bueltan.

■ ERREGE KABALGATA

Trajeak jaso, gaur

Errege Kabalgatan aterako direnek gaur jaso behar dituzte paje trajeak, 17:00etatik 18:00etara Biterin. ■

■ KRONIKA-BERRIAK

Etzi arteko epea, errifak ekartzeko

Berriak eta Kronikak elkalanean zozketatutako saskietako baten sariduna ez da azaldu, eta berriro zozketatuko da. Horretarako errifak Kronikara eraman behar dira, izena eta telefonoa bertan idatzita. Asteazken arte jasoko dira. ■

■ NATZA

'Zohardia' dokumentala, gaur

Arratsaldeko 19:30etan Zohardia dokumentala ikusteko aukera izango da gaur, Biterin. Josu Muguruzaren bizitzari buruzkoa da. Euskeraz izango da, gaztelaniaz azpitolatua. ■

■ UMEENTZAKO

Tailerrak eta karaokea, gaur

Portu auzoan karaoke festa izango da gaur umeentzat, 18:00etan. Udaletxeko arkupeetan, berriz, 6 eta 11 urte bitarteko haurrentzako tailerrak izango dira, 16:30etatik 18:30etara. ■

■ ERRUGBIA

Denda irekita

Gaur eta bihar irekita izango da, Landaren, errugbi taldearen denda, 18:00etatik 20:00etara. ■

■ ELKARTASUN DENDA

Erosteko aukera

Kale Nagusiko Elkartasun Dendak irekita jarraituko du urtarilaren 5era arte. ■

■ TXANTXANGORRI

Azken egunak lehiaketarako

Ehiza, arrantza eta tiroarekin lotutako argazki lehiaketan aurkezteko epea etzi bukatuko da. Hiru argazki bidali daitezke: info@txantxangorri.com. ■



Sorgintza auzoa, Hernani (Gipuzkoa)
Tel. 943 55 66 58 - Fax 943 33 12 08
mgarayzar@autobusgarayzar.es



Zerbitzu diskrezionalak
(Eskolarrak)

Autobus zerbitzuak
Linea erregularak

•Hernani •Donostia
•Aiete •Umieta •Andoain

MASUSTA EKODENDA

Elikadura Biologikoa
Osagai naturalak
Senda Belarrak
Kosmetika Ekologikoa
Liburuak...

•MEDIO NABURISTAREN KONTSULTA
•TNDR MASAJEA
•KIDOMASAJEA, KIDOL-MASAJEA, DIGITOPUNTURA
•YOGA KLASEAK
•ZEN MEDITAZIOA
•TERAPIETARAKO ESPAZIOA ALOKAGAI

KARDAHERAZ, 43 - HERNANI
Tel.: 943 555 710

Bikain

OKINDEGI TA GOZOTEGIA



Eguneroko ogia beti bikain

Elkano 12 - Tel.: 943 55 31 42
Ezizgo poligonoa - Tel.: 943 55 00 89



20120 Hernani

☎ TELEFONOAK • TAXIAK: 943 550093 • UDALTZAINGOA: 092 • DYA: 943 464622
• AUTOBUSAK: Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037
• ANBULATORIOA: 943 006666 - 943 203020 • JOKALARI / ALKOHOLIKO ANONIMOAK: 943 331103
✚ FARMAZIAK • Egunez: Chucua Kardaberaz 48 943 551793 • Gaez: Aizpuru Latsunbeberri 11 943 336077

EGURALDIA GAUR Hotz haundia egingo du, eta zeruan apenas izango da lainorik. Izotz galanta botako du barnealdean, eta kostaldean ere bota lezake. Min.0°/Max.6°

BIHAR Giro eguzkitsua izango da, baina izotza botako du ia denean. Hotz haundia egingo du berriro ere. Min.1°/Max.7°

(euskalnet)

PELOTA EUSKAL FEDERAZIOA



Mexiko salatu zen, baina ezin izan zuen Euskal Selekzioaren aurka ezer egin.

Munduko txapelduna izanda ere, Mexikok ezin euskaldunekin

Euskal Selekzioa indartsu dagoela argi gelditu zen atzo; bi partidua irabazi zituzten Mexikoren kontra. Paleta goman 20-30 eta eskuz 22-15.

IKARAGARRIZKO giroa zegoen atzo Hernaniko frontoian, harmailak beteta.

Emakumezkoen paleta goma partidua jokatu zen aurrena. Publikoak gogotik animatzen zituen Euskal Selekzioa eta baita Hernani ere; Amaia Irazustabarrena ari baitzen jokatzeko, Anoetako Maider Mendizabalekin. Euskaldunak aurretik izan ziren partidua osoan, eta bukaera polita eman zioten, azken tantoa bi paretako batekin irabazita.

Eskuz binaka, berriz, Euskal Selekzioko bi pelotariak ziren hernaniarrak: Paul Ojuel eta Eneko Aizpitarte. Partidu bizia eta ausarta eskaini zuten bi bikoteek, arriskuak sortzen eta gainditzen. Baina kasu honetan ere euskaldunak aurretik izan ziren denbora guztian. ■



Denek ausart jokatu bazuten ere, euskaldunak aurretik ibili ziren.



■ PALA

Hernaniarrak denean txapeldun!

Gipuzkoako Gabonetako Pala Txapelketan Garazi Urdangarin alebina izan da txapelduna, 56 parte hartaileri aurrea hartuta. Benjaminetan, berriz, Maddi Iriondok lortu zuen txapela, eta Joane Tolaretxipik bigarren postua, 14 parte hartaileren artean. Emakumea Pilotari txapelketako finalean ere, bigarren mailan, Gutierrez hernaniarrak irabazi zuen, Eizmendirekin, 30-16, Aldai eta Maizaren aurka. Aurreneko mailan, berriz, Eneritz Perez (Hernani) eta Maider Mendizabal (Anoeta) izan ziren txapeldunak, 30-18, Garmendia (Alegia) eta Maider Huiziren kontra (Hernani). ■

PUBLIARGAZKIA

■ BI ESKU



Gaur bertan irekiko du Ainhua Danborenak Bi Esku bigarren eskuko denda. «Etxean daukagunarekin eta erabiltzen ez dugunarekin dirutxo bat egiteko modua eskaintzen dut». Deposituan hartzen ditu arropak, umeentzako artikulua, elektronika gailuak... Etxez etxeko zerbitzua ere eskaintzen du, kargarekin atzera eta aurrera ibili behar ez izateko. Etxean behar ez duzuna bertara eraman dezakezu gaurtik aurrera, eta behar duzuna merke-merke erosi!

**BI ESKU, bigarren eskuko artikulua, Kale Nagusia 58
943 05 53 03/620 304 791/bieskudenda@gmail.com**

■ ERRUGBIA EUSKAL SELEKZIOA

Euskal Selekzioa Kataluniaren aurretik

33-38 irabazi zieten euskaldunek larunbatean, Kataluniari. Hernaniarrak izan ziren tartean: Genua, Etxeberria, Garmendia, Perez eta Leonet.

ERRUGBIKO Euskal Selekzioak aurrea hartu zion larunbatean Kataluniakoari, Bartzelonan jokaturako Hirugarren Mendeurrenako Kopako partiduan. 23 jokalarik osaturako euskal taldeak irabazi zuen, 33-38. Tartean ziren Hernaniko bost jokalarik: Igor Genua, Peio Perez, Iñaki Leonet, Igor Etxeberria eta Iraitz Garmendia, hain zuzen.

Partidu ikusgarria, eta aukera askotakoa

Peio Urkidi, Euskal Selekzioko selekzionatzaileak zoriondu egin zituen jokalariek, eta eskerrak eman zizkien, «bakoi-tzak erakutsitako kalitateagatik, eta gai izateagatik partidu on bat egin, ikuskizuna eman eta Kataluniako selekzio indartsuari irabazteko».

Hain zuzen, joko ederra erakutsi zuten. Katalanak

indar haundiagoarekin atera ziren zelaira, eta berehala lortu zuten 3 eta Okoa. Baina Genuak entsegu batekin erantzun zuen. Segidan beste entsegu bat egin zuten katalanek, eta euskaldunek erantzun, berriro; 10-14.

Bigarren zatian, Katalunia indartsu atera zen zelaira, eta aurreneko 15 minututan 15 puntu lortu zituen. Partidua azkartu egin zen orduan. Peio Perezek Kataluniari moztutako pase bati esker, Euskal Selekzioak entsegu egin zuen (25-19). Segidan, Genuak ateratako falta bati esker entsegu egin zuen Leonetek. Peio Perezek egin zuen hurrengo, eta Leonetek transformatu. Beste entsegu bat ere lortu zuten euskaldunek. Kataluniarrek erantzun egin zuten, baina partidua euskaldunen-tzako zen dagoeneko; 33-38. ■

IRAGARKI MERKEAK

PISUKIDE EUSKALDUNAREN BILA nabil, Portu auzoan bizitzeko urtariletik aurrera. Deitu: 615 735 815.

ETXKO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, persianak... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebrala, reflexologia, aurikuloterapia,... 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)